



DANON ARTEAN ZAINITZA EKOSISTEMA BAT SORTZEN Talde eragilearen lehen saioa

Usurbil, 2021-05-24



BERTARATUTAKOAK eta SAIOAREN EGITURA

BERTARATUTAKOAK	
1. Fatimetou	Etxez-etxeko zaintzailea
2. Belen	Zaintzaile familiarra
3. Andoni	Herritarra
4. Jacinta	Herritarra
5. Beatriz	Esperientzia eskola
6. Maider	DYA
7. Amaia	Etxez-etxeko laguntza zerbitzua
8. Oihane	Eguneko zentrua
9. Aitziber	Egoitza
10. Kontxi	Gizarte zerbitzuak
11. Maria	Gizarte zerbitzuak
12. Itziar	Zinegotzia
13. Agurtzane	Alkatea
14. Miren	Emagin
15. Mari Jose	Osakidetza
16. Xanti	Foru Aldundia
17. Ainhoa	Adinberri
18. Idoia	Adinberri
19. Maider	Matia
20. Erkuden	Matia
21. Ainara	Matia

SAIOAREN EGITURA
<ul style="list-style-type: none">• Ongietorria• Aurkezpenak• Talde eragilearen funtzionamendua adostu• Zaintza dinamika• Saioaren ebaluaketa

ONGIETORRIA, AURKEZPENAK ETA TALDE ERAGILEA

ONGIETORRIA ETA AURKEZPENAK

Agurtzane Solaberrieta alkateak ongietorria eman die bertaratutako guztie eta proiektuaren helburua azaldu, zaintza eredu berri bat kolektiboki diseinatzea. Proiektuaren jatorria eta eredu aldaketaren beharra azaldu ondoren, partaideen aurkezpenaren txanda izan da. Argi geratu da aldaketa honen beharra eta baita aldaketa hau taldean egitearen beharra, denon partaidetza ezinbestekoa izango baita prozesu guzti honetan.

Lehen saio honen helburuak hurrengoak izan dira: elkar ezagutzea, nola funtzionatuko dugun adostea eta zaintza ulertzeko modua partekatzea.



TALDE ERAGILEAREN FUNTZIONAMENDUA ADOSTU

Talde eragilea errealitate eta sentsibilitate desberdinak uztartzen dituen pertsonen osatua dago, helburua hori baita, zaintzak dituen ertz edo begirada guztiak taldean ordezkatuak egotea. Talde hau Usurbilen zein zaintza eredu nahi dugun hausnartzeko eta erabakiak hartzeko espazioa izango da eta baita herritarren ekarpenak jasotzeko abiatuko diren beste gune parte-hartzaileen arteko zubi-lana egingo duena, ekarpen horiek taldera ekarri eta bertan lekua emanez.

Talde eragile nola antolatuko den inguruan, bilerak zein egunetan egingo diren zehaztu gabe geratu zen eta taldekide bakoitzaren lehentasunak jaso ziren. Gure artean komunikatzeko pertsona bakoitzak zein euskarri erabili nahi duen ere zehaztu zuen.

ZAINZAREN INGURUKO DINAMIKA

Dinamika honen helburua talde osoak zaintza era berean ulertzea izan da, zaintzaren definizio amankomuna eta partekatua izatea. Hiru taldetan banatuta zaintza hitzarekin burura datorkigun guztia idaztea proposatu da.

Taldeen osaketa:

Lehen taldea:

Belen, Jacinta,
Fatimetu, Andoni,
Beatriz, Maria eta
Erkuden.

Bigarren taldea:

Aitziber, Amaia,
Oihane, Mainer, Kontxi
eta Ainara.

Hirugarren taldea:

Xanti, Mari Jose,
Agurtzane, Miren,
Itziar, Ainhoa, Idoia eta
Mainer



Talde bakoitzaren hausnarketaren ondoren, amankomunean jarri dira talde bakoitzean egindako ekarpenak:

LEHEN TALDEA:



Lehen taldea, Jacinta, Andoni, Belen, Fatimetu, Beatriz eta Mariaz osatua egon da. Zaintzan pentsatzean burura datorkien hitzak idazteko eskatu zaienean, indar handiaz LAGUNTZA hitza agertzen da, baita ARRETA kasu batean ere. Laguntza hau ematea, ERANTZUNKIZUN handi bat dela diote eta era berean ERANTZUNKIZUNEZ burutu behar dela uste

dute. Baita NORBERAREN DESIOAK ERRESPETATUZ, DUINTASUNEZ, TRATU ONEZ, ENPATIAZ, GIZATASUNEZ, MAITASUNEZ eta KONFINDANTZAZ, zaindua den pertsona GUREA BALITZ BEZALA zainduz. Zaintza hau LASAITASUNEZ burutzeko nahia agertzen da baita HUMOREZ ere.

Laguntza hau hainbat ekintza zehaztuz emateko beharra ageri da: HIZKETARAKO, KALERA ATERATZEKO, BIDAIATZEKO, KIROLERAKO, GAIXO GAUDEN MOMENTUTARAKO, MINA DUGUN MOMENTUTARAKO edota KONPAINIARAKO (bakarrik ez egoteko), besteak beste.

Laguntza hau burutu ahal izateko, FAMILIAREN garrantzia ageri da, zaintza ekintzan elementu garrantzitsu bezala. FAMILIEK jasaten duten KARGA, PISUA, ESTRESA ageri da. Baita zaintzak orokorrean ekar dezakeen NEKEA, KARGA, ALDAPA GORA egiten den prozesua izan daitekeela. ORDUTEGIEK honetan duten eragina ere aipatzen da.



Arrisku honen aurrean, zaintza burutzeko nahia, GOGOIA, garrantzitsutzat jotzen da. Zaintzeaz gain zaintzailea zaintzeko beharra ageri da; NORBERE ZAINNTZA eta inguruaren babesa, baita zaintzen IKASTEKO beharra (zaintza ikasketa prozesu bat bezala ulertzen delarik) eta PARTEKATZEKO ESPAZIOAK IZATEAREN beharra.



Azkenik, Zaintza burutzen den testuinguruarekin harremana duten ideak ageri dira: zaintza sistema ERALDATZEKO BEHARRA, BALIABIDEEN BEHARRA, zaintzan INBERTSIO beharra, zaintza EMAKUME ZAINNTZAILEAK sostengatua dela kontutan izatea eta zaintzari lotutako LAN BALDINTZAK eraldatzeko beharra.

BIGARREN TALDEA

Bigarren talde honetan Amaia, Oihane, Aitziber, Kontxi eta Mainerrek parte hartu dute. EMAKUMEAREN irudia irudikatu da panelean, tamaina handian, emakumeak zaintzan duen garrantzia azpimarratzeko. Aldamenean gizonaren irudi txiki bat egin da, gizonetzkoen parte-hartzea zaintzan zailtzan jartzen duena. Emakumearekin lotuta ALABA, ERRAINA eta EZKONTIDEAREN figurak ere atera ziren zaintzak emateko garaian berebiziko protagonismoa hartzen dutelako.



Zaintzarekin erlazionatuta LAGUNTZA eta BEHARRAK hitzak partekatu dira, eta AUTOZAINKETARI buruz ere hitz egin da, autozaintzaren garrantzia aipatu da zaintza jaso duen pertsona eta zaintza eskaintzen duenengan ere. Zaintzaileen zaintza ere ezinbestekotzat jotzen dute.



ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIOA funtsezkotzat jotzen dute gai honetan eraldaketa bat lortu nahi baldin bada, eta herritarrei INFORMAZIOA helaraztea ere ezinbestekotzat jotzen dute.

KONPROMEZUA, DUINTASUNA, KONFIDANTZA, MAITASUNA ere mahaigaineratu dira.

BABESA beharrezkoa ikusten dute, pertsonaren inguruan zaintza sare bat izateak eskaintzen duen babesa eta baita FORMAKUNTZA jasotzea gai honekin zerikusia duten eragile desberdinei.

Zaintzak ere KARGA sortzen du eta honek ARAZO bat dakar, denen artean erantzuna eman behar zaion arazoa, eta ez eremu pribatuan bakarrik geratu.

Azkenik BALIABIDE PUBLIKO-PRIBATUAK era koordinatu batean aritzearen garrantzia azpimarratu da, eta baliabide hauen artean egongo lirateke (familia, erakundeak, osasuna, langileak...)



HIRUGARREN TALDEA

Xanti, Ainhoa, Idoia, Agurtzane, Itziar, Mari Jose eta Mirenek osatu dute hirugarren taldea. Bost talde handitan sailkatu dira ekarpenak:

1. PERTSONA ARDATZ ADINAZ HARATAGO

Pertsonak pertsona izaten jarraitzen dut zaintza behar izanda ere. Pertsona sentitzea bere eskubide oso eta duintasunetik. Zaintza behar izanda ere komunitateko partaide izaten jarraitzen sentitzea. Emozio eta sentimenduak bizi. Pertsona bere osotasunean, duintasunetik ikusi behar dela adinaz eta egoeraz haratago.

2. DUINTASUNA ZAINZAN eta ZAINZAILLEETAN (batipat eremu profesionalean):

Ondorengo kontzeptuak atera dira: Zaintzaileak Zaindu, Zaindu ahal izateko ohorea, elkar laguntza, zaintza lanak duindu, zaintzaileen baldintzak duindu, Zaintzako kapazitazioa, formazio aukera, zaintza balioan jartzeko duintasuna landu, zaintza profesionalaren balioa, gatazka eremua (prekarizatua, diskriminazioa, bortizkeria). Orokorrean zaintzaileen diginifikazioa da ardatz puntu honetan.

Zaintza bere osotasunean duintzeko, langileen gaitasunak, formazioa, baldintzak duintzetik datozela aipatzen da. Zaintzaile, batipat profesionalen eta zaintza lanaren duintzean oinarritu dira batipat ekarpenak.

3. BALIOAK

Laguntza, onarpena, maitasuna, partekatzea, beharra, zahurgarritasuna, denbora, espazioak, nekea, bakardadea. Balio hauekin lotu da zaintza.



4. ARRETA EREDUA ETA FINANTZIAKETA

Ekosistema eraketa, balio publikoa (izaera pribatua duen eremutik atera eta beste balio, publiko, politiko, ekonomiko eta soziala eman, pertsonen beharretara egokitutako zaintza eredu berritzaileak. Konpetentzien hesiak gainditu beharra. Tokiko erabakiak indartu, udalentsat finantziarioa handitu, erakundeen arteko elkarlana eta koordinazioa, etxean zaintzeko eredu egokia, beste eredu bateruntz. Komunitatea-administrazioa-familiaren arteko oreka. Eredu feminista. Politika publiko eraginkorrak.

Arreta eredu eraldaketaren beharra, pertsona ardatz izango duena eta erantzuna administratibotik, gizarte mugimendu eta zerbitzu zein familietatik etorriko dena.

Teknologia (aipamen bat egin da, teknologia pertsonen eskura jartzeko bidean).

Dinamika borobiltzeko Mainerrek ekarpen guztiak jasoaz zaintza eredu berriak izan behar dituen printzipio eta gakoak azaldu ditu.

Dinamikan atera diren kontzeptu eta ideia guztiak, aurreko esperientzietan izandako irakasgaietan erreflexaturik ikusi dira.

Irakasgaien oinarrian, pertsonen nahia dago. Pertsonak beharrak izanda ere beraien etxean bizitzen jarraitu nahi dute, baita laguntza behar izanda ere. Eta momenturen batean etxean jarraitzerik ez balego, “etxean bezala “.

Zentzu honetan, Etxean Ondo eta Etxean Bizi proiektuetako irakasgaiak partekatu dira.

Iraupen Luzeko Zaintza eredu eraldaketara begira, zenbait printzipio azpimarratzen dira. Pertsona Ardatz duen Arreta Eredua guztiaren oinarritzat hartzen da. Pertsonen autonomia pertsonala, duintasuna, zeharkotasuna, erantzunkidetasuna, eta genero ikuspegia.

Zaintzen eredu eraldaketarako emaitza onen gakoak ondorengoak direla egiazatatu da aurreko proiektuetan: pertsonak erdian jartzea, zaintzaile familiar zein profesionalen duintze eta beharrei erantzuna, gizarte eta osasun arloen koordinazioa, lehen eta bigarren mailako gizarte zerbitzuen (Udal eta Foru Aldundia) egiteko moduak gaurkotasunera egokitzea , zaintzen gizarte eraketa, parte hartzaileen gaitasunak jasotzea, komunitatearen eta herri mugimenduen parte hartzea eta herriko zerbitzuak ere alorrean txertatzea.

Hemen aipatutakoaren irudi grafikoa:



EBALUAKETA

Saioaren amaieran ebaluaketa horria bete dute partaide guztiak (17 denera). Hona hemen emaitzak:

AURREIKUSPEN, HELBURU ETA PARTE-HARTZEAREN INGURUAN

	Bai	Ez, zergatik	EE*
1. Bete ditu bilerak zure aurreikuspenak?	16		1
2. Lortu dira aurreikusitako helburuak?	15	1 Dena ez da lehen egunean lortzen, oraindik lortu beharrekoak badaude.	1
3. Parte-hartzeko aukera eman zaidala uste dut	17	-Elkar partekatzeko testuingurua sortu da -Bota diren elementu asko ez dira jasota gelditu. Taldea txikitako aktak jasotzea oso garrantzitsua iruditzen zait.	

*EE: ez du erantzun

ANTOLAMENDUA

	Egokia	Hobetu daiteke	Zertan hobetu daiteke?
Iraupena	16	1	Ez du hobetzeko iradokizuk egin
Lekua	17		
Ordutegia	15	2	-Bere alabaren arabera -Nahigo luke laneko ordutegian izatea
Antolamendua oro har	16	1	Itzulpena akaso xuxurlarien bidez? Zalantza dut hala ere

IRADOKIZUNAK

Saioa borobiltzean aurreko ideiak jasotzea garrantzitsua da. Aurretik prestatuta badago, ez du ematen ekarpen handirik egin dugunik.

Usurbilgo osasun zentrotik parte-hartzeko bidean gara eta zaila ikusten det lan-orduetatik kanpo etortzea, bereziki orain dugun textuinguruarekin.

